



**Foru Aginduaren proposamena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2024/2025 kanpainarako ehiza aldiak eta baldintza orokorrak finkatzeko.**

2011ko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Ehizarenak, bere 31. artikulan ezarritakoa betez, beharrezko da zehaztea 2024/2025 kanpainan indarrean egongo diren murrizketa eta ehizatzeko aldiak.

Debekualdian Foru Agindu honen helburua ehiza arautzea da, baliabide naturala dela eta horren iraupena bermatu behar dela onartuta eta honako lege-arauak kontuan hartuta: 2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena; martxoaren 25eko 506/1971 Dekretua, 1970eko apirilaren 4ko Ehiza Legea gauzatzeko Erregelamendua onartzen duena; 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura-Ondarea Kontserbatzeari buruzkoa; 1995eko abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretua, Basa Landare eta Animalien habitat naturalak kontserbatuz biodibertsitatea bermatzen laguntzeko arauak ezartzen dituena; 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzkoa; 79/409/EEE, 92/43/EEE eta 94/24/EEE Direktibak; eta 1979ko irailaren 19ko Bernako Ituna.

2020/2019 denboraldiaren Foru agindua prestatzeko, lehendabizi Gipuzkoako Lurralde Historikoko ehiza espezien kontserbazio egoera zehaztu zen, gaur arte eskura dagoen ezagutza onenean oinarrituta. Horretarako, alde batetik, Gipuzkoako ehiza-hegaztien kontserbazio egoerari buruzko irizpen bat egitea enkargatu zitzaison Aranzadi Zientzia Elkarteari, eta, bestaldetik, ehizatu daitezkeen ugaztunen ebaluazioa egiteko, Departamentuan eskuragarri dagoen informazioa erabili zen, zehazki, 20 urte baino gehiagoko datuak hartsu dira. Foru agindu hau prestatzeko ikerketa horien ondorioak kontuan izan dira. Foru Agindu honetarako kontuan hartu da, halaber, ehiza-espezieen kontserbazio-egoera, 2019/2020 denboraldirako ebaluatua, balioespen hori igarotako denboraldirako baliozko dela iritzita.

Bestalde, Europar Batzordeak, 2018ko maiatzaren 23an, jendaurrean aurkeztu zuen Funtsezko Kontzeptuen Dokumentua (KCD), Europar Batasuneko ehiza-hegaztien ugaltze eta eztei aurreko migrazio garaiei buruzkoa; zehazki, Hegazi eta Habitaten Direktibaren gaineko aditu taldearen bileran (NADEG) aurkeztu zuen. Dokumentuak hegaztien fenologiarri buruzko eguneratutako informazioa jasotzen du, 10 eguneko tarteetara egokituta eta herrialdeka

**Propuesta de Orden Foral, por la que se fijan los periodos hábiles y condiciones generales de caza en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la campaña 2024/2025.**

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 2/2011, de 17 de marzo de 2011, de Caza, se hace necesario señalar las limitaciones y épocas hábiles de caza que a estos efectos deberán regir durante la campaña 2024/2025.

La presente Orden Foral de Vedas tiene como objetivo regular la caza en su condición de recurso natural cuya persistencia debe garantizarse, teniendo en cuenta para ello lo previsto en la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza, en el Decreto 506/1971, de 25 marzo, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley de Caza de 4 de abril de 1970, en la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi, el Real Decreto 1997/1995, de 7 de diciembre, por el que se establecen medidas para contribuir a garantizar la biodiversidad mediante la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres, la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, las Directivas 79/409/CEE, 92/43/CEE y 94/24/CEE y el Convenio de Berna de 19 de septiembre de 1979.

Para la elaboración de la Orden Foral de la temporada 2019/2020 se determinó el estado de conservación de las especies cinegéticas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, en base al mayor y mejor conocimiento disponible hasta la fecha. Para ello, por una parte, se encargó a la Sociedad de Ciencias Aranzadi un dictamen del estado de conservación de las aves cinegéticas de Gipuzkoa, y, por otra, para la evaluación de los mamíferos cazables, se contó con la información disponible en el Departamento, con series de datos de más de 20 años. Para la presente Orden Foral se ha tenido en cuenta, así mismo, el estado de conservación de las especies cinegéticas, evaluado para la temporada 2019/2020, considerando que dicha valoración es válida, para el período de tiempo transcurrido.

Por otra parte, la Comisión Europea, con fecha de 23 de mayo de 2018, presentó públicamente el proceso de actualización del Documento de Conceptos Claves (KCD), sobre períodos de reproducción y migración prepupal de las aves consideradas cinegéticas en la Unión Europea, durante la reunión del Grupo de Expertos sobre la Directiva Aves y Hábitats (NADEG). Este documento recoge la información más actualizada sobre la fenología de las aves,



sailkatuta; horrela, bada, ehiza-aldiak ezar daitezke ugaltze eta eztei aurreko garaietatik kanpo, basa hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/146/EB Direktibaren 7. artikuluan ezarritakoa betez.

Trantsizio Ekologikorako Ministerioak, bere garaian, datu zientifikoen analisien emaitza eta dokumentuari buruzko interpretazioa jakinarazi zizkion Europar Batzordeari.

Beraz, kontrastatutako erreferentzia bat dago Gipuzkoan baimendutako ehiza-aldiak ezartzeko, alde batera utzita ugaltze eta eztei aurreko aldiak, eta, horrela, 2009/147/EB Direktibak ezarritakoa betetzeko; hori guztia kontuan hartu da Foru Agindua prestatzeko unean.

Foru Agindu honen 2. artikuluko 3. puntuau, Gipuzkoan ehiza larrian aritzeko bete behar diren arauak sartu dira.

Foru Agindu hau egiteko orduan, era berean, emakumeen eta gizonen berdintasuneko 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, ezartzen duena kontuan hartua izan da.

Hortaz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ehiza Kontseiluari entzunik, Foru Agindua onartzea **PROPOSATZEN DA** honako atalekin:

### **1. artikulua. Ehizarako egunak eta orduak.**

**1. Ehiza egunak.** Ehiza aldiaren barruan asteko egun guztietañ ehizatu ahal izango da, espezie batzuen inguruan ezartzen diren salbuespenekin.

**2. Ehiza orduak.** Baimendutako ehiza aldian, ehizarako orduak ondorengoak izango dira:

- Urriaren 27a arte: eguzkia atera baino ordubete lehenagotik eguzkia sartu eta ordubete beranduago arte.
- Urriaren 28tik azaroaren 30a arte: goizeko 07:30etatik arratsaldeko 17:30ak arte.
- Abenduaren 1etik ehizatzeko aldiaren amaierara arte: goizeko 08:00etatik arratsaldeko 17:30ak arte.

- 2013ko uztailaren 16ko Foru Aginduaren bidez sortutako erregistroan sartzen diren ehiza tradizionaleko postuetan, 2.2.e) atalean ezarritako zozketapeko garaian: urriaren 27 arte, eguzkia atera baino ordubete lehenagotik eguzkia sartu eta ordubete beranduago arte; eta urriaren 28tik

ajustada a intervalos de 10 días y por países, de forma que se puedan establecer los períodos de caza fuera de los períodos de reproducción y migración prenupcial, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 7 de la Directiva 2009/146/CE de conservación de las aves silvestres.

El Ministerio de Transición Ecológica trasmittió, en su momento, a la Comisión Europea el resultado de los análisis de los datos científicos y su interpretación sobre el documento.

Se cuenta, por tanto, con una referencia contrastada para establecer los períodos de caza autorizados en Gipuzkoa, evitando los períodos de reproducción y de migración prenupcial, cumpliendo, de esta forma, la Directiva 2009/147/CE, lo que se ha tenido en cuenta en la elaboración de la Orden Foral.

En el punto 3 del artículo 2 de la presente Orden Foral se incluyen las normas que se deben cumplir en la práctica de la caza mayor en Gipuzkoa.

Para la elaboración de la presente Orden Foral igualmente se ha tenido en cuenta lo establecido por la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

En consecuencia, oído el Consejo de Caza del Territorio Histórico de Gipuzkoa, **SE PROPONE** la aprobación de la Orden Foral con el siguiente articulado:

### **Artículo 1. Días y horarios hábiles.**

**1. Días hábiles.** Se podrá cazar todos los días de la semana dentro del respectivo período hábil, salvo las excepciones que se especifiquen en relación con determinadas especies.

**2. Horarios hábiles.** Durante los períodos autorizados para cazar los horarios hábiles serán los siguientes:

- Hasta el 27 de octubre: desde una hora antes de la salida del sol hasta una hora después de la puesta.
- Desde el 28 de octubre hasta el 30 de noviembre: desde las 7:30 hasta las 17:30 h.
- Desde el 1 de diciembre hasta el final del período: desde las 8:00 hasta las 17:30 h.
- En los puestos de caza tradicional, incluidos en el registro creado por la Orden Foral de 16 julio de 2013, durante el período de sorteo establecido en el apartado 2.2.e): hasta el 27 de octubre, desde una hora antes de la salida del sol hasta una hora después de la puesta; y desde el 28 de octubre,



aurrera, berriz, eguzkia atera baino ordubete lehenagotik arratsaldeko 17:30ak arte.

desde una hora antes de la salida del sol hasta las 17:30 h.

## 2. artikulua. Ehiza aldiak eta berezko araudia.

**1. Erdi debekuko aldia.** Galeperra (*Coturnix coturnix*), Txoloma (*Columba oenas*), Pagausoa (*Columba palumbus*) eta Haitz-usoa (*Columba livia*): irailaren 1etik urriaren 11ra bitartean, biak barne. Ehizaldi horretan zozketatzen diren ohiko pasabideetan 2013ko uztailaren 16ko Foru Agindua aplikatuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzailleen ehiza arautzen duena.

## 2. Ehiza xehea.

**a) Ehiza xehea, oro har.** Zehaztuko diren salbuespenak salbu, ehiza aldia urriaren 12tik urtarrilaren 31 bitartekoia izango da, biak barne, lurralde historiko honetan ehiza daitezkeen espezietarako. Aipatu Gipuzkoan espezie ehizagarriak jarraian adierazitakoak dira, Ehiza arautzen duen 2/2011 Legearen 11. artikuluak eta Eusko Jaurlaritzako 2012ko urriaren 16ko 216/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezien zerrenda ezartzekoak, ezartzen dutenaren arabera:

Ugaztunak

Azeri arrunta (*Vulpes vulpes*), Erbia (*Lepus europaeus*) eta Mendi untxia (*Oryctolagus cuniculus*).

Hegazti sedentarioak

Eper gorria (*Alectoris rufa*), Faisai arrunta (*Phasianus colchicus*), Mika (*Pica pica*), Belabeltza (*Corvus corone*), Haitz usoa (*Columba livia*) eta Araba zozo pikarta (*Sturnus vulgaris*).

Hegazti migratzialeak

Galeperra (*Coturnix coturnix*), Istantor txikia (*Lymnocryptes minimus*), Istantor arrunta (*Gallinago gallinago*), Oilagorra (*Scolopax rusticola*), Txoloma (*Columba oenas*), Pagausoa (*Columba palumbus*), Durdula (*Turdus pilaris*), Birigarro arrunta (*Turdus philomelos*), Birigarro txikia (*Turdus iliacus*), Garraztarroa (*Turdus viscivorus*).

Ur hegaztiak

Antzara hankagorrizta (*Anser anser*), Ipar ahatea (*Anas strepera*), Zertzeta arrunta (*Anas crecca*), Basahatea (*Anas platyrhynchos*), Ahate mokozabala (*Anas clypeata*), Murgilari arrunta (*Aythya ferina*), Murgilari mottoduna (*Aythya fuligula*) eta Kopetazuri arrunta (*Fulica atra*).

## Artículo 2. Períodos hábiles y regulación específica.

**1. Media vedá.** Codorniz (*Coturnix coturnix*), Paloma zurita (*Columba oenas*), Paloma torcaz (*Columba palumbus*) y Paloma bravía (*Columba livia*): Desde el 1 de septiembre hasta el 11 de octubre, ambos inclusive. En las líneas de paso tradicional que se sorteen en este período se aplicará la Orden Foral de 16 de julio de 2013, por la que se regula la caza de aves migratorias en pasos tradicionales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

## 2. Caza menor.

**a) Caza menor en general.** Salvo las excepciones que se especifiquen, el período hábil será el comprendido entre el 12 de octubre y el 31 de enero, ambos inclusive, para las especies cazables en este Territorio Histórico, que, conforme al artículo 11 de la Ley 2/2011, de Caza y al Decreto del Gobierno Vasco 216/2012, de 16 de octubre, por el que se establece el listado de especies cinegéticas de la comunidad Autónoma del País Vasco, son las siguientes:

Mamíferos

Zorro (*Vulpes vulpes*), Liebre (*Lepus europaeus*) y Conejo (*Oryctolagus cuniculus*).

Aves sedentarias

Perdiz roja (*Alectoris rufa*), Faisán (*Phasianus colchicus*), Urraca (*Pica pica*), Corneja negra (*Corvus corone*), Paloma bravía (*Columba livia*) y Estornino pinto (*Sturnus vulgaris*).

Aves migratorias

Codorniz común (*Coturnix coturnix*), Agachadiza chica (*Lymnocryptes minimus*), Agachadiza común (*Gallinago gallinago*), Becada (*Scolopax rusticola*), Paloma zurita (*Columba oenas*), Paloma torcaz (*Columba palumbus*), Zorzal real (*Turdus pilaris*), Zorzal común (*Turdus philomelos*), Zorzal alirrojo (*Turdus iliacus*) y Zorzal charlo (*Turdus viscivorus*).

Aves acuáticas

Ansar común (*Anser anser*), Ánade friso (*Anas strepera*), Cerceta común (*Anas crecca*), Ánade azulón (*Anas platyrhynchos*), Cuchara europeo (*Anas clypeata*), Porrón europeo (*Aythya ferina*), Porrón moñudo (*Aythya fuligula*) y Focha común (*Fulica atra*).



**b) Erbia (*Lepus europaeus*) eta untxia (*Oryctolagus cuniculus*).** Populazioen egoera kontuan hartuta, zenbait eremutan mugatutako ehizaldiak baimenduko dira. Ehizaldi horiek egiteko eskaerak, Basa Animalien eta Landareen Zerbitzura zuzenduak, Gipuzkoako Ehiza Federazioan aurkeztuko dira 2024ko irailaren 15a baino lehen. Eskaera banakakoa edo taldekoa izan daiteke, eta ondorengo datu hauek erantsi beharko dira: izena, NA (taldeak diren kasuan, ehiztari bakoitzarena), sexua eta eskatutako ehiza lekuak eta egunak.

**c) Eper gorria (*Alectoris rufa*) eta faisai arrunta (*Phasianus colchicus*).** Urriaren 12tik urtarrilaren 31 bitartean, biak barne, ehiza egunak ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetara mugatzen direlarik.

**d) Oilagorra (*Scolopax rusticola*).** Urriaren 12tik otsailaren 16ra, biak barne. Espezie hau ehiza daiteke, baina "saltoan" ehiza txakurrarekin bakarrik. Debekatuta dago, beraz, "zelatan" ehizatzea. Ehiztari eta eguneko, gehienez hiru oilagor harrapatu daitezke.

Gipuzkoan oilagorraren ehizaren kudeaketa egokirako behar den informazioa lortzearren, beharrezkoa da ehizatzen denaren parte bat alboan eramatea, hartara espezie horren ehiza aprobetxamendu komuneko lur zinegetikoetan egiteko. Parte hori Gipuzkoako Ehiza Federazioan jaso beharko da, eta, bete eta gero, Federaziora bertara eraman. Ehiztaria behartuta dago datuok ehizatzen duen egunean bertan betetzena. Orobak, harrapaketak momentuan bertan markatu beharko dira, eta oilagorra prezintatu egin beharko da, harrapaketa partearekin batera banatzen diren prezintoekin.

Berezko araudia duten ehiza-erregimen berezikor lurretan, oilagorra gune horien araudi bereziaren arabera ehizatuko da.

**e) Pagausoa (*Columba palumbus*).** Pagausoaren ehiza aldia otsailaren 16ra arte luzatzen da.

**f) Hegazti migratzaileak ohiko pasabideetan.** Irailaren 15etik urtarrilaren 31 bitartean, biak barne.

Ohiko pasabideetako ehiza foru agindu honek xedatutakoaren arabera arautuko da: 2013ko uztailaren 16ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzen duena. Ohiko pasabidetzat hartuko dira foru agindu horrek arautzen duen Erregistroan jasotakoak. Eremu

**b) Liebre (*Lepus europaeus*) y conejo (*Oryctolagus cuniculus*).** Teniendo en cuenta el estado de las poblaciones, se podrán autorizar cacerías limitadas en determinadas zonas. Las solicitudes para la realización de dichas cacerías, dirigidas al Servicio de Fauna y Flora Silvestre, se presentarán en la Federación Guipuzcoana de Caza antes del 15 de septiembre de 2024. Dicha solicitud podrá ser individual o colectiva e incluirá los siguientes datos: nombre, DNI (en caso de grupos los de cada cazador o cazadora), sexo y el lugar y las fechas de caza solicitadas.

**c) Perdiz (*Alectoris rufa*) y faisán (*Phasianus colchicus*).** Desde el 12 de octubre hasta el 31 de enero, ambos inclusive, estando su caza limitada a jueves, sábados, domingos y festivos.

**d) Becada (*Scolopax rusticola*).** Desde el 12 de octubre hasta el 16 de febrero, ambos inclusive. Solamente se permite la caza de esta especie "al salto" con perro de caza, quedando prohibida su caza a la espera. El cupo máximo por cazador o cazadora y día de caza es de tresbecadas.

Con el objeto de obtener la información necesaria para una adecuada gestión de la caza de la becada en Gipuzkoa, se establece la obligación de portar un parte de captura, para poder practicar la caza de dicha especie en terrenos cinegéticos de aprovechamiento común de Gipuzkoa. Dicho parte se deberá recoger en la Federación de Caza de Gipuzkoa y se deberá entregar, una vez cumplimentado, en la misma Federación. El cazador o cazadora estará obligado a llenar los datos incluidos en el parte de captura la misma jornada de caza. Asimismo, las capturas se deberán marcar al momento en el parte de captura y se deberá precintar la becada cazada con los precintos que, a tal efecto, acompañan al parte de capturas.

En terrenos de régimen cinegético especial, la caza de la becada se desarrollará de acuerdo con lo establecido en su normativa específica.

**e) Paloma torcaz (*Columba palumbus*).** Se prolonga el período de caza de la paloma torcaz hasta el 16 de febrero.

**f) Aves migratorias en pasos tradicionales.** Desde el 15 de septiembre hasta el 31 de enero, ambos inclusive.

La caza en zonas tradicionales de paso se regirá por lo dispuesto en la Orden Foral de 16 de julio de 2013, por la que se regula la caza de aves migratorias en pasos tradicionales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se considerarán líneas de paso tradicional las incluidas en el Registro regulado mediante dicha orden foral. En dichas



horietan Lurralde Oreka Berdeko Departamentua eta Gipuzkoako Ehiza Federazioak ohiko pasabideak kudeatzeko onartutako baldintzak beteko dira. Zozketak irailaren 15ean hasi, eta azaroaren 17ra bitartean egingo dira. Pasabideak hobeto kudeatzearen zozketak luzatu nahi dituzten elkartek abenduaren 31ra bitartean luzatu ahal izango dituzte, aurrez Gipuzkoako Ehiza Federazioaren bidez, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuari baimena eskatuz.

2013ko uztailaren 16ko Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzen duenak ezartzen duena aldatuz, zozketan postua tokatu zaion ehiztariak ez badu postua okupatzen, lerro bereko beste postu baten titularrak okupatu dezake postu hori, eta, Gipuzkoako Ehiza Federazioak emandako zozketako txartela duen beste ehiztari batek okupatu dezake goizeko 10etik aurrera, aipatutako foru agindu horren 14. artikuluaren arabera, baina postuaren titularraren esku utzi behar du postua, baldin eta titular hori bere postua okupatzen agertzen bada.

Zozketan postua tokatu zaion ehiztariak bere postua laga ahalko dio Gipuzkoako Ehiza Federazioak emandako zozketako txartela duen beste ehiztari bati, jasotako frogagiriaren atzealdean adierazita lagapen-hartzalearen izena, bi abizenak, eta NANaren zenbakia. Lagapena erabat debekatuta dago, baldin eta frogagiria eskuordetza baten bidez eskuratu bada. Izan ere, kasu horretan, frogagiria pertsonal eta besterenezina da, eta hala jasoko da emandako frogagirian.

Anguta ohiko pasabidean 5 postu Leintz-Gatzagako udalerrian daude, eta lerroak Arabatik jarraitzen du, guztira 21 postu osatu arte. Lerro osoaren kudeaketa egokia bermatzeko, Arabako postuen iparraldean dagoen lurralde gipuzkoarrean 2013ko uztailaren 16ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzen duena aplikatuko da.

Ohiko pasabide bezala izendatu ez diren eta Federazioak kudeatzen ez dituen gainontzeko lerroetan ehiza arloan indarrean dagoen araudi orokorra aplikatuko da.

**g) Uretako hegaztiak.** Ur hegaztien ehiza migrazio garaian baimenduko da soilik: irailaren 15etik azaroaren 17a bitartean, basahatea (*Anas platyrhynchos*) izan ezik, urtarriaren 31a arte ehizatu ahal izango dena.

zonas se aplicarán las condiciones acordadas por el Departamento de Equilibrio Territorial Verde y la Federación Guipuzcoana de Caza, para la gestión de las líneas de paso tradicional. El período de sorteo será el comprendido entre el 15 de septiembre y el 17 de noviembre. Las sociedades que, para una mejor gestión de las líneas, quieran prolongar los sorteos podrán hacerlo hasta el 31 de diciembre, previa solicitud al Departamento de Equilibrio Territorial Verde, a través de la Federación Guipuzcoana de Caza.

Modificando lo establecido en la Orden Foral de 16 de julio de 2013, por la que se regula la caza de aves migratorias en pasos tradicionales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el caso en que el puesto no sea ocupado por la persona cazadora favorecida en el sorteo, dicho puesto podrá ser ocupado por el cazador o cazadora titular de otro puesto de esa misma línea, y a partir de las 10 h de la mañana, por cualquier otra persona en posesión de la tarjeta de sorteo emitida por la Federación Guipuzcoana de Caza y a la que se refiere el artículo 14 de la mencionada Orden Foral, debiendo dejarlo a disposición de su titular en caso de que acudiera a ocupar su puesto.

La persona favorecida por el sorteo podrá ceder su puesto a otro cazador o cazadora que ostente la tarjeta de sorteos emitida por la Federación Guipuzcoana de Caza, indicando en el reverso del justificante recibido, el nombre, dos apellidos y nº del D.N.I. de la persona cesionaria. La cesión quedará terminantemente prohibida cuando el justificante se haya obtenido en virtud de una delegación, siendo en este supuesto el justificante, personal e intransferible, circunstancia que se hará constar en el justificante emitido.

La línea de paso tradicional de Anguta cuenta con 5 puestos en el término municipal de Leintz-Gatzaga y continúa por el territorio de Álava, completando un total de 21 puestos. Con objeto de garantizar una adecuada gestión de la línea en su conjunto, en el territorio guipuzcoano situado al norte de los puestos ubicados en la parte alavesa de la línea se aplicará la Orden Foral de 16 de julio de 2013, por la que se regula la caza de aves migratorias en pasos tradicionales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa-

En el resto de líneas no declaradas de pase tradicional y no gestionadas por la Federación Guipuzcoana de Caza se aplicará la normativa general vigente en materia de caza.

**g) Aves acuáticas.** La caza de aves acuáticas solo se autoriza desde el 15 de septiembre hasta el 17 de noviembre, salvo el Ánade azulón (*Anas platyrhynchos*), que se podrá cazar hasta el 31 de enero.



**h) Azeria (*Vulpes vulpes*).** Urriaren 12tik martxoaren 2ra bitartean, biak barne.

Azeriaren ehiza araubide arrunteko lekuetan uxaldietan baimenduko da soilik larunbat, igande eta jaiegunetan, eta Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuaren baimena beharko da. Espezie hori ehizatzeko baimena duen ehiztariak baimenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Uxaldietan, gutxienez bost ehiztarik parte hartu beharko dute, eta ezingo da uxaldia egin ehiztari kopuru txikiagoarekin.

Ehizaldi horiek egiteko eskaerak Gipuzkoako Ehiza Federazioan aurkeztuko dira, Basa Animalien eta Landareen Zerbitzura zuzenduta, 2024ko irailaren 15a baino lehen. Eskaeran adierazi behar da ehizan arituko den taldea nortzuk osatzen duten, horietako bakoitzenaren izen-abizena, NA eta sexua eta arduradunaren helbidea eta telefono zenbakia. Era berean, ehizaldia egin nahi den lur azalera eta herria zehaztu beharko dira.

Erregimen berezipeko ehiza lurretan azeriaren ehiza dagokion plan zinegetikoan adierazitakoari jarraikiz arautuko da.

### 3. Ehiza larria.

**a) Baimendutako espezieak.** Basurdea (*Sus scrofa*) eta Orkatza (*Capreolus capreolus*).

**b) Ehizaldia.** 2024ko irailaren 1etik 2025eko apirilaren 13ra artekoa izango da, eta ehiza egunak ostegun, larunbat, igande eta jaiegunak izango dira.

### c) Uxaldietan Ehiza larrian aritzeko arauak.

1. Kudeaketa-taldeko arduraduna edo uxaldian parte hartuko duten ehiztarien artean dagoen ordezko arduraduna izango da ehizaldiaren arduraduna, bere egitekoa honako hau izango delarik:

- Uxaldia antolatu eta garatu bitartean indarrean dagoen ehiza-araudia nahitaez bete behar dela informatzea eta ohartaraztea.
- Parte-hartzaile guztiei azaltzea zer neurri hartu behar diren pertsonen segurtasuna bermatzeko, bereziki segurtasun-distantziei eta tiroaren norabideari dagokienez.
- Uxaldia hasi aurretik, uxaldiari alta ematea dagokion aplikazioan. Uxaldiari alta emateko orduan, uxaldiaren arduradunaren izen-abizenak, NANa eta telefonoa adierazi beharko dira.

**h) Zorro (*Vulpes vulpes*).** Desde el 12 de octubre hasta el 2 de marzo, ambos inclusive.

La caza del zorro en los terrenos cinegéticos de régimen común se autorizará únicamente en batida los sábados, domingos y festivos y deberá contar con el permiso del Servicio de Fauna y Flora Silvestre. Los cazadores y cazadoras autorizados para la caza de esta especie deberán cumplir las condiciones establecidas en el permiso. En las batidas deberán participar al menos 5 cazadores o cazadoras, no pudiéndose celebrar la batida con un número inferior.

Las solicitudes para la realización de dichas cacerías, dirigidas al Servicio de Fauna y Flora Silvestre, se presentarán en la Federación Guipuzcoana de Caza antes del día 15 de septiembre de 2024. En dicha solicitud figurará la composición de la cuadrilla con el nombre, apellidos, D.N.I. y sexo de cada miembro y con el domicilio y número de teléfono de su responsable. Asimismo, deberá indicar la mancha y municipio donde se pretenden realizar las batidas.

En los terrenos cinegéticos sometidos a régimen especial, la caza del zorro se regirá con arreglo a lo indicado en el plan cinegético correspondiente.

### 3. Caza mayor.

**a) Especies autorizadas.** Jabalí (*Sus scrofa*) y Corzo (*Capreolus capreolus*).

**b) Período hábil.** El comprendido entre el 1 de septiembre de 2024 y el 13 de abril de 2025, siendo los días hábiles los jueves, sábados, domingos y festivos.

### a) Normas para la práctica de la caza mayor en batida.

1. La persona responsable del grupo de gestión o la persona responsable sustituta presente entre los cazadores y las cazadoras que vayan a dar la batida, será la responsable de la cacería, siendo su cometido:

- Informar y advertir del obligado cumplimiento de la normativa cinegética vigente durante la organización y desarrollo de la batida.
- Explicar a todas las personas participantes las medidas necesarias para garantizar la seguridad de las personas, en especial, en lo referido a las distancias de seguridad y a la dirección de tiro.
- Dar de alta la batida en la aplicación correspondiente, de forma previa al inicio de la batida. A la hora de dar de alta la batida se deberá incluir el nombre y



- Ehiztari bakoitzari bere postua non dagoen adieraztea.
- Ehizaldiaren hasiera eta amaiera seinale bidez agintzea.
- Uxaldia egin eta hurrengo astean uxaldiaren emaitzak dagokion aplikazioan aurkeztea.

2. Basurde-uxaldian gutxienez 10 parte-hartziale egon behar dira, eta gehienez 60 egongo dira, uxatzaileak eta zakurzaleak barne.

Eremu berean ehizatzeko baimena duten bi «ehiza-kudeaketako taldek» edo gehiagok eremu berean ehiza egin nahi badute, elkarrekin egin dezakete ehizaldia, baldin eta beraien artean ados jartzen badira, eta uxaldiko parte-hartziale kopurua 60 baino gehiagokoa ez bada, uxatzaileak eta zakurzaleak barne. Beraien artean adostasunik ez balego, lehentasuna izango du lehenengo bertaratu eta dagokion aplikazioan uxaldiari alta lehenago eman dion basurde taldeak.

Gipuzkoako Foru Aldundian ehiza arloko eskumenak dituen zerbitzuak uxaldi bereziak baimendu ditzake, lehen aipatutakoa baino parte-hartziale kopuru handiagoarekin, ehiza gunearen ezaugarriengatik beharrezkoa den kasuetan.

Ehiza larriko uxaldietan gonbidatuak sartu ahal izango dira (baimenean sartuta ez daudenak), Gipuzkoako Ehiza Federazioari jakinarazi eta dagokion alta eskuratu ondoren. Gonbidatuak Gipuzkoako ehiza larriko beste kudeaketa taldeetako kideak izan daitezke. Gonbidatutako pertsonen kopurua ez da uxaldiaren ardura duen kudeaketa-taldeko parte-hartzailleen kopurua baino handiagoa izango. Nolanahi ere, parte-hartziale kopurua gehienez 60 izango da, zakurzaleak eta uxatzaileak barne.

Orkatz uxaldien kasuan 10 pertsonek parte hartuko dute gutxienez, eta gehienez 40 pertsonek parte hartuko dute. Gune berean, baimen egokiekin bi taldek elkarrekin ehizatu nahi badute, egin ahal izango dute, beti ere, akordio batera iritsita eta uxaldian 40 ehiztarik baino gehiago parte hartzen ez badute, txakurzaleek barne. Akordiorik ez badago ehizaldia bertan behera geldituko da eta ez baimendutzat joko dugu.

- apellidos, DNI y teléfono de la persona que será responsable de dicha batida.
- Señalar a cada cazador o cazadora la ubicación de su puesto.
- Ordenar mediante señales el inicio y final de la cacería.
- Presentar en la aplicación correspondiente los resultados de la batida, la semana siguiente a su celebración.

2. En la batida de jabalí el número mínimo de participantes será de 10 y el máximo no podrá superar en ningún caso el número de 60, incluidas las personas encargadas de batir el monte y de conducir a los perros.

Si dos o más grupos de gestión cinegética de caza mayor, con la debida autorización, desean cazar en la misma zona, podrán realizar la cacería conjuntamente siempre que exista acuerdo entre los mismos y el número de participantes en la batida no sea superior a 60, incluidas las personas encargadas de batir el monte y de conducir a los perros. En el caso de que no haya acuerdo, tendrá preferencia la cuadrilla de jabalí que se haya personado y dado de alta la batida más tempranamente en la aplicación diseñada al efecto.

El Servicio de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de caza podrá autorizar batidas especiales con un mayor número de participantes que el señalado anteriormente, cuando sea necesario por las condiciones de la mancha a batir.

Será posible la inclusión de personas invitadas (no incluidas en la autorización) por batida de caza mayor, previa información a la Federación Guipuzcoana de Caza y obtención del alta correspondiente. Las personas invitadas podrán ser integrantes de otros grupos de gestión cinegética de caza mayor de Gipuzkoa. El número de personas invitadas no podrá superar el número de participantes del grupo de gestión responsable de la batida. En cualquier caso, el número total de participantes en la batida no podrá ser mayor de 60, incluidas las personas encargadas de batir el monte y de conducir a los perros.

En el caso de las batidas de corzo, el número de personas cazadoras participantes en la batida deberán ser como mínimo 10 y como máximo 40. Si dos cuadrillas con la debida autorización desean cazar en la misma zona, podrán realizar la cacería conjuntamente, siempre que exista acuerdo entre las mismas y en la batida no participen más de 40 cazadores y cazadoras, incluidas las personas encargadas de conducir a los perros. Si no hay



3. Uxaldiak ezin dira hasi 15:00etatik aurrera.

4. Uxaldiak egiten diren bitartean, zorrotz bete beharko dira segurtasun neurriak. Uxaldian parte hartzen duten ehiztari guztiak, bai txakurzainek bai lerroan daudenek, jantzi islatzaileak eraman beharko dituzte nahitaez soinean, taldekideek zein ehizaldian parte hartzen ez duen jendeak ondo ikusteko modukoak.

Ehizaldian, debekatuta dago ehiztariek eta haien laguntzaileek postuak aldatzea edo bertan behera uztea, egitea egongo da, ehizaldiaren arduraduna edo eskuordetutakoa jakinaren gainean baldin badaude.

Uxaldia egingo den eremuko bideetan eta sarreretan seinaleak jarriko dira, testu honekin: BAIMENDUTAKO UXALDIA / BATIDA AUTORIZADA Ehiztariek eskopeta deskargatuta izan beharko dute uxaldia hasi baino lehen eta bukatu ondoren; postuan daudenean bakarrik egon ahal izango da kargatuta.

Basurde uxaldietan, ehizagunean uxatzeaz eta zakurrak eramateaz arduratzentz direnek hiru eskopeta arte eraman ditzakete, basurde bat akabatzeko edo zakurrei eraso egitea saihesteko.

5. Basurde-uxaldi bat egin behar den egun eta leku berean ehiza larriako baimena duen beste ehiztari talde batek orkatzaren uxaldi espezifiko bat egin behar badu, edo azeria edo erbia ehizatzeko baimena duen ehiza xeheko ehiztari talde batek ehizatu behar badu, basurdearen uxaldiak izango du lehentasuna.

6. Usoak ehizatzeko ohiko pasabideetan kokatutako postuak erregulatzen dituen araudiaren arabera, ehiztariak ezin dira kokatu ehiza postuen artean, ezta 500 metro aurretik edo 120 metro atzetik ere. Ezingo dira jarri, ezta ere, pasabidearen bi alboetara 100 metroko tartean. Hegazti migratzaileen ehizari buruzko erabilera eta ohiturak errespetatuko dira uneoro.

7. Ehiza-modalitate hau balarekin bakarrik egingo da, eta debekatuta dago beste edozein munizio mota erabiltea eta edukitzea, batez ere postak eta zero bikotzak (00).

acuerdo, la cacería quedará suspendida y se considerará no autorizada.

3. Las batidas no se podrán iniciar después de la 15:00 horas.

4. En tanto se celebren las batidas, se extremarán las medidas de seguridad. Todas las personas que participen en la batida, tanto las personas encargadas de conducir a los perros como las situadas en la línea, deberán llevar obligatoriamente prendas reflectantes, que garanticen que los cazadores y cazadoras sean visibles por el resto de compañeros y compañeras o por personas ajenes a la cacería.

Se prohíbe el cambio o abandono de los puestos por los cazadores y cazadoras y sus auxiliares durante la cacería, haciéndolo solamente, llegado el caso, con conocimiento de la persona responsable de la misma o de la delegada.

En los caminos y zonas de acceso a la batida se deberá poner señalización con el texto: BAIMENDUTAKO UXALDIA / BATIDA AUTORIZADA. Los cazadores y cazadoras deberán permanecer con el arma descargada antes y después de la batida, pudiendo estar cargada únicamente una vez situados en el puesto.

En las batidas de jabalí, quienes se ocupen de batir la zona de caza y de conducir los perros podrán llevar hasta tres escopetas, con el fin de rematar un jabalí o evitar ataques a los perros.

5. Si coincide que en el mismo lugar y fecha donde se vaya a dar la batida de jabalí se presenta una cuadrilla de caza mayor con autorización para dar una batida específica al corzo o una cuadrilla de caza menor con autorización para la caza de zorro o liebre, la batida de jabalí tendrá preferencia.

6. Atendiendo a lo dispuesto en la normativa que regula la caza en pasos tradicionales de paloma, los cazadores y cazadoras no pueden situarse entre los puestos de caza ni en 500 metros por delante, ni en 120 metros por detrás de los mismos, ni a 100 metros a los lados de la línea. Se respetarán en todo momento los usos y costumbres en lo que a la caza de aves migratorias se refiere.

7. Esta modalidad de caza sólo se practicará con bala, estando prohibido el uso y la tenencia, durante el ejercicio de la caza, de cualquier otro tipo de munición, en especial las postas y el doble cero (00).



8. Derrigorrezkoa da uxaldiari alta ematea, horretarako diseinatu den aplikazioan. Alta eman behar da behin uxaldia egingo dela baiezatzen denean; hau da, lerroa bertan dagoenean. Alta telefono mugikorretik egin daiteke (smartphone), edo ordenagailu batetik, helbide honetara sartuta: <http://mobi.nekagip.eus/EhizaUxaldia/>.

9. Uxaldia burutu eta hurrengo astean, uxaldiaren emaitza aurkeztuko da ehiza arloan eskumena duen zerbitzuan. Informazioa ehiza kudeaketako aplikazioan sartu behar da, <http://mobi.nekagip.eus/EhizaKudeaketa> web orrian.

10. Uxaldia amaitu ondoren, animaliei zigilu ofiziala jarriko zaie, eta harrapaketa partean zenbat bota diren adieraziko da.

11. Ehizatu diren basurde guztiak trikinaren albaitariaren derrigorrezko kontrola pasako dute. Gipuzkoako Lurralde Historikoan zaintzapeko 12 ehiza eremu kudeatzeko Aldundiak eta Ehiza Federazioak sinatu zuten hitzarmenaren V. eranskinean ezarritakoa jarraitu beharko da.

d) Basurdearen eta orkatzaren ehiza deklaratutako Kontrolatutako Ehiza lekuetan egingo da, dagokion plan zinegetikoan adierazitakoaren arabera.

**4. Baimen berezia behar duten ehiza motak.**  
Legeztatutako ehiza-hegaztiak edo arkua erabiliz ehizan aritu nahi dutenek Gipuzkoako Foru Aldundiako Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren baimen berezia eskuratu beharko dute. Baimen hori Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuari eskatuko zaio Gipuzkoako Ehiza Federazioaren bidez.

### 3. artikulua. Faunaren babesia, oro har.

#### 1. Debekuak.

2/2011 Legeak, Ehizarenak, ezartzen dituen debekuez gain, eta bereziki, ehizaren jarduna arautzen duen bere V. tituluan ezarritakoez gain, honako baliabide eta arte hauekin ehizatzea galarazten da:

1. Debekatua dago ehizatza eratzun-perkusiozko armekin eta gauez tiro egitea ahalmentzen duten bisoreekin.

2. Debekatua dago ehiza debekua duten terrenoetan eta, oro har, debekualdian edozein ehiza terrenotan.su armekin ibiltzea zorrotik kanpo edo muntatuta, baita aire konprimitzu nahiz bestelako gasez eragindakoekin ere, dagokion baimenik gabe.

8. Es obligatorio dar de alta la batida en la aplicación diseñada al efecto. El alta deberá realizarse una vez que se confirme que la batida se va a efectuar, es decir cuando la línea esté situada. El alta se puede hacer desde un dispositivo móvil (smartphone), o desde un ordenador en la siguiente dirección: <http://mobi.nekagip.eus/EhizaUxaldia/>.

9. Será obligatoria la presentación ante el Servicio competente en materia de caza del resultado de la batida la semana siguiente a su celebración. La información deberá introducirse en la aplicación gestión de caza, incluida en la página web <http://mobi.nekagip.eus/EhizaKudeaketa>.

10. Una vez finalizada la batida, se colocará el precinto oficial a los animales capturados, reflejando su número en el parte de captura.

11. Todos los jabalíes cazados pasarán el control veterinario obligatorio de triquina. Se deberá seguir lo establecido en el Anexo V del Convenio, firmado por la Diputación y la Federación, para la gestión de 12 zonas de caza controlada en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

d) La caza del jabalí y del corzo se practicará en las Zonas de Caza Controlada declaradas, con arreglo a lo indicado en el plan cinegético correspondiente.

**4. Modalidades de caza que requieren permisos especiales.** Quienes deseen practicar la caza con aves de cetrería legalizadas o con arco, deberán obtener previamente el permiso especial del Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que se solicitará al Servicio de Fauna y Flora Silvestre a través de la Federación Guipuzcoana de Caza.

### Artículo 3. Protección a la fauna en general.

#### 1. Prohibiciones.

Además de las prohibiciones establecidas en la Ley 2/2011, de Caza, y en particular, en su Título V, en el que se regula el ejercicio de la caza, se prohíbe cazar con los siguientes medios, métodos y artes:

1. Se prohíbe cazar con armas de percusión anular y con visores que permitan el disparo nocturno.

2. Queda prohibido en los terrenos en los que la caza no está permitida, así como con carácter general durante la época de veda en cualquier tipo de terreno cinegético, transitar con armas de fuego desenfundadas y montadas, así como las accionadas por aire comprimido u otros gases, si



no se dispone de la correspondiente autorización.

## 2. Espezie ehizagaien komertzializazioa.

2/2011 Legeak, Ehizarenak, bere 45 artikuluan ezarritako betez, eta irailaren 15eko 1118/1989 Errege Dekretuak xedatutakoarekin bat eginez, Gipuzkoan komertzializa daitezkeen espezieak hauek dira:

### Ugaztunak:

Erbia (*Lepus sp.*)  
Untzia (*Oryctolagus cuniculus*)  
Azeria (*Vulpes vulpes*)  
Basurdea (*Sus scrofa*)  
Oreina (*Cervus elaphus*)  
Orkatza (*Capreolus capreolus*)  
Adarzabala (*Dama dama*)

### Hegaztiak:

Basahatea (*Anas platyrhynchos*)  
Eper gorria (*Alectoris rufa*)  
Faisai arrunta (*Phasianus colchicus*)  
Pagausoa (*Columba palumbus*)  
Txoloma (*Columba oenas*) (\*)  
Haitz-usoa (*Columba livia*) (\*)  
Galeper arrunta (*Coturnix coturnix*) (\*)

(\*) Industria ustiapenetako aleak soilik.

## 2. Comercialización de especies cinegéticas.

En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 45 de la Ley 2/2011, de Caza, y conforme a lo dispuesto el Real Decreto 1118/1989 de 15 de septiembre, las especies comercializables en Gipuzkoa son las siguientes:

### Mamíferos:

Liebre (*Lepus sp.*)  
Conejo (*Oryctolagus cuniculus*)  
Zorro (*Vulpes vulpes*)  
Jabalí (*Sus scrofa*)  
Ciervo (*Cervus elaphus*)  
Corzo (*Capreolus capreolus*)  
Gamo (*Dama dama*)

### Aves:

Ánade real (*Anas platyrhynchos*)  
Perdiz roja (*Alectoris rufa*)  
Faisán (*Phasianus colchicus*)  
Paloma torcaz (*Columba palumbus*)  
Paloma zurita (*Columba oenas*)  
Paloma bravía (*Columba livia*) (\*)  
Codorniz común (*Coturnix coturnix*) (\*)

(\*) Sólo los ejemplares procedentes de explotaciones industriales.

## 3. Ehiza Segurtasun Aldeetan.

Segurtasun Alde espresuki deklaratuak izan diren tokietan berariazko arauen arabera egingo da ehiza.

**3. Caza en Zonas de Seguridad.** En aquellos lugares expresamente declarados como Zonas de Seguridad, la caza se realizará con arreglo a la normativa específica reguladora de las mismas.

## 4. Ehiza Naturagune Babestuetan.

Gipuzkoan deklaratutako Parke Naturaletan (Aralar, Aiako Harria, Pagoeta eta Aizkorri-Aratz), Paisaia Natural Babestuetan (Inurritza eta Zumaia-Deba), Leitzaran ibaia Natura Erreserban eta Natura 2000 Sarean dauden guneetan, gune horien araudi berezian ezarritakoaren arabera ehizatuko da.

## 4. Caza en los Espacios Naturales Protegidos.

La caza en los Parques Naturales declarados en Gipuzkoa (Aralar, Aiako Harria, Pagoeta y Aizkorri-Aratz), en los Paisajes Naturales Protegidos (Iñurritza y Deba-Zumaia), en la Reserva Natural río Leitzaran y en los espacios incluidos en la Red Natura 2000, se desarrollará de acuerdo con lo establecido en su normativa específica.

## 4. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza, mendi eta ehizarako kaltegarriak diren espezieak kontrolatzeko neurriak.

## Artículo 4. Medidas de control de especies perjudiciales para la agricultura, ganadería, montes y caza.

Especie horiek egindako kalteak agertzen diren lurrealdeetan, espezie horien kontrolerako prozedurariik egokiena baimendu ahal izango du Lurralde Oreka Berdeko Departamentua, indarrean dagoen legeriaren arabera.

En aquellos terrenos donde circunstancialmente aparecieran daños causados por estas especies, el Departamento de Equilibrio Territorial Verde podrá autorizar el procedimiento más adecuado para su control, de acuerdo con la normativa vigente.

## 5. artikulua. Neurri bereziak.

Ehiza moten iraupenerako erabat kaltegarriak diren klimazko, biologiazko edo beste edozeinezko

## Artículo 5. Medidas circunstanciales.

A fin de prevenir los daños que pudieran ocasionarse a la riqueza cinegética del Territorio



zirkunstantziak direla eta, Gipuzkoako edo eskualde bateko ehiza ondasunari egin dakizkiokeen kalteei aurrea hartzeko, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuak bereganatzen du mota horietako batzuen edo guztien ehiza aldiak aldatzeko ahalmena.

Histórico de Gipuzkoa o de una comarca, por circunstancias climáticas, biológicas o cualesquiera otras extremadamente desfavorables para la conservación de las especies, el Departamento de Equilibrio Territorial Verde se reserva la facultad de modificar los períodos hábiles de algunas de las especies, o de todas ellas.

#### **6. artikulua. Arau-haustea.**

Foru Agindu honen arauak hausteari, dagokion zigorra jarriko zaio, lege hauei jarraikiz: Natur Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea; 2/2011ko Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena; 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura-Ondarea Kontserbatzeari buruzkoa, eta aplikagarri izan daitekeen beste edozein arau.

#### **Xedapen indargabetzailea.**

Foru agindu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten garrantzia bereko edo gutxiagoko xedapen guztiak baliogabeturik geratzen dira.

#### **Azken xedapena.**

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

#### **Artículo 6. Infracciones.**

Las infracciones a la presente Orden Foral serán sancionadas según proceda, conforme a la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, a la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza, a la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi, y conforme a cualquier otra norma que resulte aplicable.

#### **Disposición derogatoria.**

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Orden Foral.

#### **Disposición final.**

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Donostia, 2024ko uztailaren 8a/ San Sebastián, 8 de julio de 2024

BASANIMALIEN ETA LANDAREEN  
ZERBITZUBURUA/  
EL JEFE DEL SERVICIO DE FAUNA Y FLORA  
SILVESTRE

NATURA INGURUNEKO ERDI  
MAILAKO TEKNIKARIA/  
TÉCNICO MEDIO DE MEDIO NATURAL

**LURRALDE OREKA BERDEKO DIPUTATUA  
DIPUTADO DE EQUILIBRIO TERRITORIAL VERDE**